

# Zaila bada, ez da ezinezkoa

## Nafarroako hizkuntza politikaz

Dabid Anaut Peña

*Euskal Filologian lizentziaduna, udal euskara-teknikaria eta euskalgintzako ekintzailea*

**N**afarroan euskara biziberritu eta normalizatuko bada, ezinbestekoa izanen da, besteak beste, hizkuntza politika sendoa eta eraginkorra gauzatzea. Konpromiso handirik gabeko esaldia da hori, ia edonork sina lezake. Abiapuntu eroso horretatik abiatu eta gauzak zehazten hasiz gero, ordea, bestelako galdera batzuk sortzen dira.

Esate baterako: zer da hizkuntza politika eta nori dago-kio? Izan ere, eta literatura soziolinguistikoak eman dituen hamaika definizioak gorabehera, hizkuntza politika modu oso zabalean edo modu hertsiagoan uler liteke. Hizkuntza politika, ikuspegi zabaletik begiraturaz gero, gure gizarte sistema honetako parte diren egitura eta eragile orori dagokio, hizkuntza baita giza jarduera orok baliatzen duen erreminta; ondorioz, gizarte jarduera orok izan lezake eragina hizkuntzaren bizitzan eta garapenean. Kontziente izan edo ez, esan genezake denok egiten dugula hizkuntza politika. Korporazio industrial batek egiten duena jo genezake hizkuntza politikatzat, baita familia batek etxe barruan egiten duena ere, nahi izanez gero.

Ikuspegi hertsiago batetik begiratzen dugunean, berriz, hizkuntza politikaz ari garenean batez ere erakunde publikoek

eta administrazioek egiten duten horretaz ari gara, eta artikuluhonetan ikuspegi horri lotuko gatzaizkio. Labur beharrez, eta oraingoan arreta bereziki horretan jarri nahi dugulako.

Hizkuntza politikaz ari garela, eta hautatu dugun ikuspegi hertsiago horretan kokatuta, sortzen zaigun beste galdera bat honakoa da: zein da, euskararen bilakabidean eta garapenean, erakunde publikoek egiten duten hizkuntza politikaren pisa? Esate baterako, herritarrek egoera eta une jakin batean euskararen edo erdararen aldeko hautua egiten dutenean, zenbaterainoko pisa dauka erabaki horretan erakunde publikoek eta administrazioek egiten duten hizkuntza politikak, 'ofizialtasunetik' datozen neurriek eta ekimenek?

Hiztuna –azken batean euskara gehiago edo gutxiago erabiliko duen hori–, bere hautua egiteko garaian, alde batera edo bestera bultzatuko duten faktore batzuk identifikatu izan ditugu, baita horien pisa neurtu ere zenbaitetan: hiztunaren hizkuntza gaitasuna, inguruan duen euskaldunen dentsitatea, besteak beste.

Baina ez dugu zehatz neurtu eta kuantifikatu, nik dakidala behintzat, indarrean dagoen hizkuntza politikaren ondorioz hartzen diren eta hartzen ez diren erabakien inpaktua eta emaitza. Alegia, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera arautzen duten lege xedapenek eta hizkuntzen ezagutza eta erabilera kudeatzeko eta horretan eragiteko botere publikoek hartzen dituzten eta hartzen ez dituzten erabakiek duten inpaktua eta emaitza.

Horren guztiaren neurketa eta ponderazioa egitea ez da erraza izanen, baina gauza zailagoak egiten saiatu gara makina bat aldiz. Eta egin beharko litzateke, nire ustez, intuizioa den hori berretsi edo, aitzitik, auzitan jarriko lukeelako. Botere publikoen hizkuntza politikak hizkuntzaren garapenean eragin handia duela eta funtsezkoa dela berretsiz gero, konstatazio horrek aurrera begirako bide orrian isla izan beharko luke, baita lehentasunak hautatzeko garaian ere.

Gaur egun, jakina da, ohikoa da oso pilota hiztunaren eta haren zirkunstantzia pertsonalen gain uztea –hizkuntzaren

alorrean bezala, baita beste hainbatetan ere-, instituzioei dagokien zama arinduz, euskaraz edo gaztelaniaz egitea erabaki pertsonal hutsa bailitzan. Eta, zenbaitetan, badirudi erakundeen hizkuntza politikarik gabeko euskararen bide orri bat osatu nahi dugula edo, hori gehiegi esatea bada, erakundeen hizkuntza politikaren beharra eta egitekoa nabarmen lausotzen eta minimizatzen duen bide orri bat osatu nahi dugula.

### «Piztia esnatuko da»

Neurketa eta ponderazio zehatz horren euskarri sendo eta zientifikoaren heldulekua izan gabe ere, erakunde publikoen hizkuntza politika funtsezkoa eta ezinbestekoa delako hipotesitik abiatuko naiz ni, nahikoa sinetsita bainago hori hala dela. Zaila egiten zait oso erakundeen esku hartze sakonik gabe euskara biziberritzea eta erresistentzia dinamika batetik ateratzea lor litekeenik sinestea.

Hori hala bada, beraz, eta euskara indarberritzeko bide orrian botere publikoen hizkuntza politikak ere lehentasuna izan behar badu, eskakizun horren tamaina ezin da, soil-soilik, botere publiko horietan eragiteko dugun ahalmenaren arabera izan. Erakundeek hizkuntza politika eraginkorra egin dezaten sustatu eta eskatu beharko dugu, eta ezin dugu hori egin gabe utzi ez dugulako inor urduritu nahi, ez dugulako molestatu nahi, pertsuasioa delako bide bakarra, edo nagiak jota gaudelako... Beste kontu bat da hizkuntza politika egin dadin eskatzeko eta presioa egiteko

Erakunde publikoen hizkuntza politika funtsezkoa eta ezinbestekoa delako hipotesitik abiatuko naiz. Zaila egiten zait oso erakundeen esku hartze sakonik gabe euskara biziberritzea eta erresistentzia dinamika batetik ateratzea lor litekeenik sinestea

modua berritzea edo egokitzea, baina naiftasun inozo batean erori gabe egin dezagun, ahal bada.

«Kontuz, piztia esnatuko da» bezalako esaldiak entzun izan ditugu Nafarroan, gure artean, euskararen inguruko ekime- nei eta eskaerei zorrotz eta gogor eutsiz gero piztia euskara- foboa bere lozorrotik ateraraziko genukeelakoan. Eta beldur sor hori oraindik ere egon badagoela ematen du batzuetan, alegia, hobe dela xuabe-xuabe aritzea, gozo-gozo, onkeriaz..., piztiak eraikitzen goazen guztia deseginen ez badigu.

Eta bai, xuabe-xuabe eta gozo-gozo ere ari gaitzke, baina ez da irmo eta tinko aritzearekin bateraezina. Lehenengoan geldituz gero, akaso, ez dugu inor haserrearaziko eta piztia lasaixeago egonen da, baina euskarak etorkizun sendo eta osasuntsua izan dezan eman beharreko urrats erabakigarriak eman gabe geldi gaitzke.

## **Begiratu azkar bat Nafarroako erakundeen hizkuntza politikari**

Nafarroan, xelebrea edo are absurdoa ematen badu ere, era- kunde berbera, aldi berean, norabide batean eta kontrakoan ari daiteke. Eta halaxe ari da Nafarroako Gobernua hizkuntza politikari dagokionez.

Euskarabidea ari da alde batetik, bertako arduradun eta langileen bitartez, euskara sustatzeko eta hedatzeko ahale- ginean. Azkeneko urteotan, konparaziora, Euskararen Plan Estrategikoa diseinatu eta horren arabera saiatzen ari da euskararen egoeran eragiten, hobetze aldera. Eta euskarak baditu beste aliatu solte batzuk Nafarroako Gobernu-ko hainbat departamentu, zerbitzu eta ataletan, korronte antolatu eta egituratua osatzen ez badute ere. Horiek denek euskararen aldeko norabidean tira egiten dute, Nafarroako erakunde publiko nagusitik.

Baina Nafarroako Gobernuan bertan, aldi berean baina aurkako norabidean doazen beste indar batzuk ere badaude; zoritxarrez, horiek dira, nire ustez bederen, gaur egun pisu

eta eragin ahalmen handiena dutenak, Euskarabideak duena baino handiagoa, alegia. Funtzio Publikoaz arduratzen den departamentua, edo Hezkuntzakoa, esate baterako.

Paradoxa hori dugu Nafarroan, beraz, hizkuntza politikari dagokionez. Ziur asko beste alor batzuetan ere antzeko egoerak aurki genitzake, antzeko errealitate kontraesankorrak, baina euskarari dagokionean oso-oso bistakoa eta nabarmena da, baita etsigarria eta mingarria ere, euskaltzalearen ikuspegitik behinik behin.

Hori esanda, eta Nafarroan egiten den hizkuntza politikaren deskribapena bi paragrafotan laburtu beharko bagenu, honela egin genezake:

- Euskararen aldeko hizkuntza politika aktibo eta esplizitua egiten da Nafarroan. Zenbait udalek egiten dute, baita Nafarroako Gobernuaren egituraren zati batek ere. Oro har, azken hamarkadotan euskarari irabazi batzuk ekarri dizkion arren, muga handiak dauzka (legalak, ekonomikoak, politikoak, psikologikoak...), eta ez da inolaz ere aski euskararen egoera iraultzeko eta normalizazioaren bidean jartzeko.
- Euskararen aurkako hizkuntza politika aktiboa egiten da Nafarroan, agerikoa batzuetan eta inplizitua beste batzuetan. Zenbait udalek egiten dute, Nafarroako Gobernuak egiten du, baita estatuak eta, bereziki azken aldian, zenbait epaitegik ere. Euskara muga jakin batzuetan hesituta edukitzeko helburuan nahikoa emaitza ona lortzen ari da.

## **Orain arteko hizkuntza politikak utzitako datu edo adierazle esanguratsu batzuk**

Deskribapen labur horretaz gainera, Nafarroako Gobernuaren orain arteko hizkuntza politika xehe azaltzeak luze joko luke. Labur beharrez, baina horren tankeraren berri ematen lagun lezakeelakoan, hizkuntza politika horrek utzi dituen eta gure ustez esanguratsuak diren zenbait datu edo adierazle ekarriko ditugu hona.

- Euskararentzat eraikitako marko legalak bere horretan dirau: Nafarroa hiru eremutan zatitu zuten 1986an eta, 37 urte geroago, banaketa indarrean dago, berdin jarraitzen dugu. Nafarroako zatirik handienez, Iruñea hiriburua barne, euskara ez da hizkuntza ofiziala. Orduz geroztik sortutako lege garapen osoa marko horretan eta marko horrek baldintzatuta gertatu da.
- Euskarazko irakaskuntzaren mugak: %30aren langa ezin pasa. Belaunaldi berriak euskaldundu zitezten egindako ahaleginak ehuneko horretara eramane gaitu. Nafarroako Gobernuak, inoizka, D ereduaren aldeko ekimen herabe samarrak egin baditu ere, euskarazko irakaskuntza sustatzeko eta hedatzeko ahalegina gizarte mugimendutik etorri da nagusiki. Nafarroako Gobernuak hainbat urtez erakutsitako jarrera hotzak –eta are kontrakoak, sarritan–, bestelako faktore batzuekin batera, euskarazko irakaskuntzaren hedapena zaildu eta trabatu egin du.
- Gaur egun, oraindik ere, Nafarroako eremu zabal bateko deialdi publikoetan, alemana, ingelesa nahiz frantsesa

Euskararen  
biziberritzearen eta  
normalizazioaren  
ikuspegitik negatiboak  
diren adierazleak eta  
datuak gailentzen dira  
Nafarroako Gobernuaren  
hizkuntza politika  
deskribatzerakoan

merrezimendu gisa baloratzen  
atea irekita dago, eta euskarak  
ate hori bera itxita dauka. Ha-  
rrigarria gerta lekioko askori,  
baina gehiago dauka mingarri-  
tik eta iraingarritik, egia esa-  
teko. Nafarroako lurraldean  
barrena egiten den hainbat  
eta hainbat deialdi publikotan  
Nafarroan hitzun talderik eta  
eskaera sozialik ez daukan ale-  
mana baloratzen da, eta ber-  
tako hizkuntza propioa den,  
lege aitortza duen eta hitzun

komunitate sendoa duen euskara ez. Hori ontzat emateak  
eta zuritzeak ia beste deusek baino hobeki argitzen du  
zenbaiten euskararekiko ikuspegia eta kokapena zein den.

- Nafarroako Gobernuak –ustez, laster onartzeko– presatatu duen hizkuntzen merezimenduen dekretua aurreko egoerarekiko atzerapausoa da. Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzeko dekretuen soka luzea da, eta oso gorabeheratsua eta gatazkatsua. Egin diren eta onartu diren dekretu guztiak 1986ko legeak ezarritako zonifikazioaren markoan sortuak dira, eta, aldeak egon badauden arren, horietako bakar batek ere ez ditu euskaltzaleen espektatibak bete. Hizkuntza politikaren inguruko eztabaidetan, lanpostu publikoetako hizkuntza eskakizunak eta merezimenduen balorazioa izan dira korapilo nagusietako bat, eta horiek dekretu horien bitartez arautu izan dira. 2000ko hamarkadaren hasieran dekretu erabat murriztaileak landu eta indarrean jarri ondoren, 2015-2019ko legegaldian onartutakoak, murriztailea eta ez-nahikoa izaten jarraitzen zuen arren, hobekuntza txikiren bat ekarri zuen. Azken legegintzaldi honetan landu denak, ordea, berriz ere atzera egiten du, eta euskararekiko eraiki nahi den hesia indartzera dator.
- Parlamentuak PAI programa hizkuntza-eredu bihurtzea erabaki du, gobernuak gidatzen duen PSNren eta Navarra Sumaren botoekin. Irakaskuntzan euskarazko ereduari indarra kendu eta galga jartzeko egindako urratsari bultzada eta estatus indartsuagoa eman nahi diote modu horretan. Apustuari eusteaz gain, indartu ere egin nahi dute.

Euskararen biziberritzearen eta normalizazioaren ikuspegitik negatiboak diren adierazleak eta datuak gailentzen dira Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika deskribatzerakoan. Badira, nolahi ere, norabide egokian egindako urratsak ere, horiek korrante nagusia aldatzeko behar besteko indarrik ez duten arren.

- Euskararen Plan Estrategikoa: azken urteotan egin den urrats positiboetako bat da. Gabezia nabarmenak dauka, ez da behar lukeena, baina hizkuntza politikak behar duen tresnetako bat da, eta aukera batzuk eman litzake. Plan Estrategiko horren testuinguruan, baina baita hori

baino lehenago ere, euskara sustatzeko ildoak eta ekime-  
nak garatu izan ditu Nafarroako Gobernuak, azkeneko  
urteotan Euskarabidearen eskutik.

Gogoratu behar da, nolana ere, II. Plan Estrategi-  
koak, 2021eko abendutik bukatuta bada ere, gobernuan  
onartu gabe jarraitzen duela. Sustatu eta gauzatu ditzake  
Euskarabideak plan horretan jasotako hainbat egitasmo,  
eta neurri batean behintzat hala ari da, baina plan hori  
onartzeko gobernuaren aldetik sumatzen den erresisten-  
tzia adierazgarria ere bada.

- Euskara sustatzeko aurrekontuetan aldaketak: UPNren  
garaietatik hona aldatu den alderdietako bat da. Nahi-  
kotasun mailara iritsi ez diren arren, euskararen norma-  
lizazioarekin lotutako aurrekontuetan iguera gertatu da  
azken urteotan.
- Legean aldaketa partzial batzuk gertatu dira: hezkun-  
tzaren eremuan 2015ean, esate baterako, eremu ez-eus-  
kaldunean euskarazko irakaskuntzari bidea zabaltzeko  
norabidean. Edo eremu ez-euskalduneko 44 udalerrri  
eskualde mistora eta mistoko bat eremu euskaldunera  
igarotzeko 2017an egindako aldaketa. Ildo horri segida  
emateko aukera sortu da 2023ko hasieran, Mañeruko  
Udalak eremu mistoan sartzeko eskaera egin baitu, baina  
PSNk eta Navarra Sumak aukera zapuztu dute, euskararen  
normalizazioarekiko beren ildoak berretsiz.

## **Sentsazioak eta esan beharreko batzuk**

Aitortzea etsigarria bada ere, esan beharra dago azken ur-  
teotan Nafarroako Gobernua gidatu duen alderdi politikoa-  
ren –PSN, hain zuzen ere– euskararekiko jarrera hotza, oso  
hotza, izan dela. Erabateko indiferentzia, sentsibilitaterik eza.  
Hori, kasurik onenean. Zenbaitetan, kontraktasun ebiden-  
tea. Eta, horretan, parlamentuko indar politiko nagusiaren  
babesa dauka. Nafarroako Gobernuko buru Maria Chivite  
Irulegiko aurkikuntzaren berri ematen ikusi dugu, euskararen

bertakotasunaren ebidentzia saihetsezin eta distiratsua goratzen, baina oraingoz su horrek ez du gure agintariak estaltzen dituen izotza urtzen lagundu.

Indar politiko jakin batzuen analisisian, agidanez, euskararekiko aurkakotasunak eta jarrera gogorrak ez dauka kostu politiko handirik; aitzitik eta are okerrago, onura politiko ere ekar lezake. Albiste txarra euskararentzat eta euskal hiztunontzat; izan ere, gauza jakina da sarritan mugimenduak irabazien eta kostu politikoaren arteko erlazioaren arabera egiten direla. Gaur egun, eta bereziki boto zaku gizenagoa espero duten lurralde eremuetan, indar politiko horiei iruditzen zaie gehiago komeni dela euskararen hedapenarekiko aurkakotasunean irmo agertzea ulerkor eta eskuzabal agertzea baino.

Jarrerak jarrera, ordea, euskararen normalizazioak adostasun sozialaren eta politikoaren bidetik etorri beharko du, bestela nekez iritsiko baita halakorik. Eta, beraz, adostasunaren esanahiaz eta irismenaz ñabardurak egitea komeni bada ere, onkeriarekin eta denari betoa jartzeko aukerarekin nahas ez dadin, nahikoa logikoa da adostasun horren bila ahaleginak eta bi egitea, Kontseiluak abiatutako *Batuz aldatu* ildoaren moduan, adibidez. Jakin badakigun arren, noski, gaur egun adostasun sozial eta politiko zabal horretatik nahikoa urrun gaudela Nafarroan eta, zer esanik ez, euskalgintzan nahikoa adostuta dagoen eta aldarrikatzen den eman beharreko jauzitik urrun. Neurtzen hasiz gero, esanen nuke hurbilago dugula –edo ez hain urruti behinik behin– adostasun soziala politiko baino, eta zentzuzkoa dirudi sekuentzia horrela lantzea, alegia, adostasun sozial indartsu baten bila joatea, adostasun politikoaren eragile eta bultzatzaile izanen delakoan.

## **Bizi ala iraun?**

Ez baita gauza bera. Galdera horren aurrean, oraingoz ‘iraun’ horretan gabiltzala esanen nuke. Eta esanen nuke irauteko zera horretan zailduta eta ongi entrenatuta gaudela, eta, horrenbestez, eta bestela ere euskarari eusteko grina eta kemena

oraindik ere indartsua delako hiztun talde esanguratsu bategan, badugula tarte batean irauteko behar beste erregai.

Euskaltzaleon aspirazioa ez da hori, ordea. Euskaltzale guz-tion azken helburua adostuta eta argi formulatuta ez badugu ere, euskaraz normaltasunez eta eroso bizitzeko aspirazioa badugu behintzat, eta hortik urrun gaude oso.

Nafarroan baditugu egoera hori irauli nahi duten indarrak, eragileak eta ekimenak, eta gaur egun inora iristeko itxaropena eta aukera baldin badago, horiek hor daudelako eta ari direlako da, bulkada hori hor dagoelako: euskalgintzako eragileak eta bilguneak, euskal kulturgintza, euskarazko hedabideak, euskarazko hezkuntzako eragileak, euskalduntze-alfabetatzean ari diren erakundeak, UEMA, Korrika bezalako aspaldiko ekimenak... Baita azken urteotako ekimen berri eta interesgarriak ere: Errigora eta Agerraldia, Hordago, Laba, Euskaraldia, Gazte Euskaltzaleen Sarea, unibertsitateko euskara taldeak, 2023ko ekainerako mobilizazio handi bat proposatu duen ekimen herritarra...

Bestalde, esanen nuke euskara indarberritzeko eta normalizatzeko egin beharreko urrats esanguratsuak zein izan litezkeen marrazteko ezintasun teorikorik ez dagoela. Gizartea azkar aldatuz doa, hori ere bistakoa da, eta asmatu behar da agertoki, egoera eta motibazio berriei erantzuten eta horietara egokitzen. Baina normalizazioaren alderdi tekniko eta teorikoak ez luke arazo izan behar; asmatuko genuke, gutxi asko, XXI. menderako neurriak diseinatzen, dauden proposamenen sintesi bat egiten, baita berriak asmatzen ere. Ez du erraza izan beharrik, baina egingarria bai.

Gakoa, beraz, beste nonbait dago, nire ustez: alde batetik, eta erakunde publikoek egin behar duten hizkuntza politikaren osagarri, euskalgintzaren eta, oro har, gizartearen bultzadan, hizkuntza politika ez baita euskaltzaleon auzi eksklusiboa. Nolanahi ere, gizartea egiteko horretara lotu behar bada, eta euskalgintzak horren motorra izan behar badu, euskalgintza indarberritzea ezinbestekoa da, prozesuaren hauspoa, izan ere, horixe izanen baita.

Eta borondate politikoa, bestetik; euskara eztabaida politikoaren erdira eraman behar da –eta ez eztabaida edo polemika partidistaren erdira–, eta behar diren erabaki politikoak hartu. Artikulu honetan mintzagai dugun hizkuntza politika egin edo eginarazi, alegia.

Zein izanen litzateke egoera optimoa eta desiragarria? Bada, nire ustez, bederen, estatu egiturak izatea, hizkuntza politika burujabea egiteko eta euskararen normalizazioak eskatuko lituzkeen erabakiak askatasunez hartzeko.

Ez da hori, bistan denez, gaur arratsaldean gertatuko; horra iritsi baino lehen, oso lagungarria izanen litzateke hizkuntza politikaren inguruan lehenago aipatu dugun adostasun soziala eta politikoa lortzea. Alderdi

politikoen arteko eztabaidan sumatzen den eztabaida mikatza eta zenbait alderdik muturreraino eramaten dituzten baieztapenak –horietako batzuk gezur galantak, gainera– ez dira, ziur asko, hain muturrekoak eta ez daude hain hedatuak herritarren artean. Eztabaida politikoak gizartean dagoen pertzepzioa distortsionatu egiten duela esanen nuke; zorioenez, adostasun soziala agian eman lezakeena baino eskuragarriagoa izan liteke.

Inkestetatik jaso ditugun emaitzetatik ‘euskararen aurkako blokean’ sartu ditugun herritar horietako asko ez daude, uste dudanez, benetan euskararen aurka. Euskara sustatzearen aurka daudela esan genezake, agian, baina horri ere ñabardura bat egin geniezaioke: euskararen sustapenez duten irudi eta pertzepzio jakin batek eraman ditu kasu askotan kontrakotasun hori adieraztera, eta irudi hori oso distortsionatua da kasurik onenean, eta faltsua eta maltzurki manipulatua sarritan. Euskararen sustapenari buruzko eztabaida zintzo, argi eta burutsu batek jarrerak asko leundu litzakeela iruditzen

Euskara eztabaida  
politikoaren erdira  
eraman behar da  
–eta ez eztabaida edo  
polemika partidisten  
erdira–, eta behar diren  
erabaki politikoak hartu

zait, eta argazkia ere zertxobait aldatuko luke. Euskarafobia erreal eta gotor bat ere izan badela ukatu gabe, betiere.

Oraingoz urrun gaude, baiki, lehenxeago aipatu dugun adostasun horretatik, ez dugu geure burua engainatuko. Baina, bitartean, ezin geldirik egon, eta dauzkagun baliabideekin eta indarrekin hizkuntza politika ahalik eta eraginkorrena egiten eta eginarazten saiatu beharko dugu. Adostasun horren bidetik, bai, baina hizkuntza politika eraginkorra egin dadin beharko genukeen adostasun sozial eta politikoaren *fumata bianca* horren zain deus egin ezinik gelditu gabe, jakina.

## **xxi. mendeko hizkuntza politikari begira**

Gauzak tarteka formulazio sinple baten bitartez adieraztea eroso bai baina arriskutsua ere badela jakin arren, ausartuko naiz nire ustez hizkuntza politikak lortu beharko lukeena modu labur batean eta sofistikazio handirik gabe biltzen. Aldez aurretik argituta, badaezpada, helburu hori ez duela erakunde publikoen hizkuntza politikak bakarrik lortuko, gizarte osoak baizik, langintza horretan askotariko eragileek elkar osatuz. Baina botere publikoei ere badagokie; horretaz ari gara artikulu honetan, eta horren bila joan beharko lukete. Honela jaso genezake, labur-labur: euskaraz eroso egiteko gai izanen diren hiztunak behar dira, masa kritikoa, alegia; hiztun horiek hitz egiteko espazioak eta aukerak behar dituzte; eta, azkenik, euskaraz egiteko arrazoiak. Hiru atal horiek landu eta sustatu behar ditu hizkuntza politikak, eta hiru ardatzeko eskema sinple horretan txerta liteke seguruenik euskararen biziberritza sustatzeko egin litekeen jarduera edo ekintza oro.

Hori esanda, eta aurrera begira jarrita, garai honetarako eta datozen urte edo hamarkadotan etor litekeen garairako kontuan hartu beharreko ideia edo gogoeta batzuk ekarriko ditut. Ez dira kontuan izan beharreko gako guztiak, jakina, baina guztiak iruditzen zaizkit kontuan hartu beharrekoak.

Honatz:

- Hizkuntza politikarentzat koltxoi eta testuinguru sozial eta politiko egokia sortu behar da. Eman dezagun, askotxo ematea bada ere, Nafarroan euskara biziberritzeak aginduko ligukeen bide orri sendoa eta hizkuntza politika eraginkor eta egokia diseinatzea eta adostea lortzen dugula, adostasun politikoa barne: Nafarroa osoan euskarak estatus ofiziala; arnagune geografikoak eta soziofuntzionalak babestu, indartu eta josteko politika bat; lan munduan euskara txertatzeko bide orri eraginkor bat; euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa lortzeko urratsak adostuta; euskara ikasteko doakotasuna bermatuta; aisialdia euskaraz bizitzeko aukera eta eskaintza antolatuta; eskal kultura transmititu eta sustatzeko egitasmo sendo bat; digitalizazioari aurre egiteko estrategia bat; euskarazko hedabideentzako marko eta hitzarmen egokia... Gisa horretakoak adostuta eta abiatuta prest, alegia. Hori gauzatu beharko balitz, igerilekuan ura beharko genuke, jauzi egin eta hezurak hautsi nahi ez baditugu. Hizkuntza politikak gizarte osoaren hainbat geruzatan eraginen luke, eragileak bezalaxe hartzaileak ere badauzka, eta horiei ere onargarria gertatu behar zaie. Ez da lortuko hizkuntza politikaren inguruko adostasun politiko sendorik, aurretik gizarte atxikimendu sendorik ez badago; baina ezin dugu jokatu atxikimendu hori zaindu eta elikatu gabe, betierekoa eta zirrikiturik gabea izanen balitz bezala.
- Euskararen biziberritzea ongizatearekin lotzen asmatu beharko genuke, norbanakoaren eta komunitatearen ongizatearekin, alegia. Oker ez banago, badira gizartearen ongizatea neurtzeko adierazleen artean gisa horretako osagaiak txertatzen hasi diren lurraldeak, adierazle materialetatik harago, asebetetze psikologikoarekin edo animikoarekin zerikusia duten adierazleak txertatu dituztenak. Norberak hautatzen duen hizkuntzan aritzeko aukera izateak badu hor tokia, eta ongizatea neurtzeko eta baloratzeko erabili ohi ditugun eskemak iraultzea eta erresistentzia batzuk birrintzea eskatuko lukeen arren,

bide interesgarria izan liteke hizkuntza politika sendoei euskarria emateko.

- Hizkuntza politikak, betiere, ongi konektatuta egon beharko du herritarrek eta hiztunek izanen dituzten beharrek, interesekin, emozioekin, motibazioekin. Horiek guztiak ez dira estankoak, mugiezinak eta itxiak; aldatu, bilakatu eta berritu egiten dira, eta horietatik urruntzen den hizkuntza politika koltxoirik gabe geldi liteke. Eta, halaber, izanen garenarekin zerikusia izan behar du, ez soilik izan ginenarekin.
- Gauzak ez dira duela 30 urte ziren bezalakoak, eta 30 urte barru ere ez dira izanen gaur diren bezalakoak. Are gehiago, baliteke azkeneko 30 urteotan gertatu den aldaketa handia are handiagoa izatea datozen hiru hamarkadotan. Sarritan alferrikako lana ematen du proiektio sinesgarri

Zergatik egingen du euskaraz, hogeitau urte barru, euskaldunak?

Zein izanen da euskaldunarentzat euskaraz egiteak, eta ez erdaraz, izanen duen zentzua?

bat egiten saiatzeak, baina argi samar ematen du teknologiak, esate baterako, bestelako agertoki batzuk ekarriko dizkigula. Baliteke, adibidez, erakunde publikoek, administrazioarekin ditugun harremanetan hizkuntza eskubideak bermatzeaz gainera, gure bizimodua inbadituko duten era guztietako gailu elektronikoekin eta adimen artifizialaz hornitutako

askotariko makinekin euskaraz egiteko eskubidea ere bermatu behar izatea.

Edo lan munduari dagokionez. Euskararen biziberri-tzean lan munduak eta arlo sozioekonomikoak izanen duen garrantziaz ari garenean, zein da gogoan dugun lan munduaren eta enpleguaren irudia? Gaur egun ezagutzen dugun hori, aldatzen ari den arren oraindik ere aurreko hamarkadetako agertokia islatzen duena? Edo 20-30 urte barru lan mundua izanen den hori, berarekin oso

bestelako ezaugarriak, aritzeko moduak eta harreman sareak ekar litzakeena? Lan mundua ‘desglosatzen’ saiatu gabe egin ote dezakegu fundamentuzko proiektiorik eta bide orririk? Benetan izan daiteke lan mundua euskalduntzea belaunaldi berri batzuk motibatuko dituen eta euskararen biziberritzearen jardunera ekarriko dituen erronka?

- Teknologiaren uholdeak arriskuak ekarriko dizkigu hizkuntza gutxituoi, baita aukera batzuk ere. Eta hor, irudika genitzakeen balizko agertoki horien lainoaren artean, galdera bat indartsu agertzen ari dela iruditzen zait: teknologiak lagundutako harreman linguistikoek aseko ote gaituzte? Teknologiaren bitartekaritzak hizkuntza elkarrekinza asko egingarri eta erraz bihurtuko dizkigu akaso, noiznahi eta nonahi norberaren hizkuntzan aritzeko aukera eta bermea eskainiz, adibidez; baina baliteke harreman linguistiko horien nolakotasuna ere sakon aldatzea eta, nolabait esateagatik, ‘naturaltasuna’ galtzea. Aseko gaitu horrek?
- Zergatik eginen du euskaraz, hogeitau urte barru, euskaldunak? Horretan ere pentsatu beharko dugu. Bestela pentsatzen eta argudiatzen ohituta gaude, alegia, «zergatik ez du(gu) euskaraz egiten?» da ohiko galdera, baina datozen hamarkadetan –baita gaur egun ere– galdera alda dezakegu. Gauzak dezente aldatu eta ongi joanez gero, espero genezake euskaldun kopuru esanguratsua izanen dugula hogeitau urte barru, eta, gainera, horiek bermatuta izanen dutela hainbat espaziotan euskaraz aritzeko aukera. Zergatik eginen dute euskaraz eta ez erdaraz? Gaur egun euskaldunok euskaraz egitera eramaten gaituzten arrazoiek eta bulkadek indarrean jarraituko dute, edo oso bestelakoak izanen dira? Zein izanen da euskaldunarentzat euskaraz egiteak, eta ez erdaraz, izanen duen zentzua? Motibazio zahar batzuk, guretzat balio handia zutenak, desagertu eginen dira eta beste berri batzuk sortu? Sortuko dira berez edo sorrarazi beharko dira nolabait?

- Uste dut euskararen biziberritzeak ezinbestean eskatzen duela, gaur egun eta epe motz-ertainean behintzat, euskal hiztunen kopuru esanguratsu bat hiztun kontzientea eta, hitza deseroso samarra egiten bazait ere, ahaldundua izatea. Euskaraz edo erdaraz egitea, denbora tarte luze samarrean akaso, erabaki eta hautu kontziente samarra izanen da egoera eta espazio askotan, eta inertziaren aurka hautu jakin bat egin beharko du euskaldunak sarritan. Jarrera kontziente baten heldulekua beharko du ziur asko, erdara gailenduko ez bazaio, batez ere euskaldun gehienek tipologia zein izanen den kontuan izanda. Eta are gehiago beharko du jarrera kontziente hori, euskara erabiltze hutsaz gainera, euskara biziberritzeko ahaleginean eragile aktibo izan behar badu. Gisa horretako euskal hiztunak beharko ditu euskarak, eta uste dut hizkuntza politikak, eta erakunde publikoek egiten duten hizkuntza politikaz ari naiz, hori ere bilatu behar duela eta horretarako bitartekoak jarri. Euskaltzale eta euskal hiztun kontzientea izatea ez da arautu edo behartu litekeen zerbait, noski, baina bai susta edo elika litekeena. Gizarteak berak sortzen du batez ere gogo eta kontzientzia hori –edo orain arte behintzat berak sortu du–, baina ez dut arrazoi sendorik ikusten erakundeek hizkuntza politika egiteko horretatik salbuesteko.
- Azkenik, eta bukatzeko, beste alderdi garrantzitsu bat: euskararekin gozatu beharra daukagu, euskarak satisfakzioa eman behar digu. Gauza interesgarriak egin behar ditugu euskaraz, gozamenerako eta ongi sentitzeko lurralde bat ere izan behar du, eta euskarazko kulturgintzak sekulako ekarpena egin dezake horretan, egiteko hori bete dezan beharrezko baliabideez hornituz gero. 